



WEBGUNEA

<https://oyarbideaimar.wixsite.com/misitio>

FUNTSEZKO BALIABIDEAK:

Gure enpresa aurrera eramateko, hau da bigarren eskuko mugikor eta ordenagailuen salmenta, denda fisiko bat edukitzeaz gain mugikorrak eta ordenagailuak beharko ditugu. Hasiera batean ez dugunez edukiko diru nahikoa kostu guztiei aurre egiteko, mailegu bat eskatzeko asmoa daukagu, ondoren diru hori pixkanaka bankuari bueltatu egingo diogu. Diru kontuak alde batera utzita, esperientzia eta abileziak beharrezkoak dira gure enpresa arrakastatsua izateko, horretarako bertan lan egiten hasi baino lehen teknologiaren inguruko hainbat kurtso egingo ditugu. Horretaz gain enpresako kide bakoitzaren abilezien arabera enpresan kargu bat edo beste edukiko du.